

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak mundu osoko ehun bat eskualderekin akordio bat sinatu du isurketak 2050era arte murrizteko

Ekitaldia atzo, igandean, egin zen Parisen, Klima Aldaketari buruzko Gailurraren barnean

Lunes, 07 de diciembre de 2015

Nafarroak munduko ehun bat eskualderekin akordio bat sinatu zuen atzo, igandean, Parisen 2050era arte berotegi-efektuko gas-isurketak % 80 murrizteko, egunotan Frantziako hiriburuan egiten ari den Klima Aldaketari buruzko Gailurraren barnean.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusi Eva Garcia Balaguerrek izenpetu zuen testua Nafarroako Gobernuaren izenean, Parisko Amerikako Enbaxadan egindako ekitaldian. [Under2Mou](#) sarea izeneko ekimena da, eta Kaliforniako estatua (AEB) eta Baden-Württemberg (Alemania) dira buru.

2050 arte berotegi-efektuko gas-isurketak % 80 murriztea Gailurraren azken helburuari gehitzen zaio, hau da, berotze globala 2 gradu Celsius baino gutxiagora mugatzea mende honen amaierarako.

Beste eskualde batzuen artean, akordio honekin bat egin dutenak dira: Rhône-Alpes, (Frantzia), Eskozia (Erresuma Batua), Acre (Brasil), Columbia Britainiarra, Ontario eta Quebec (Kanada), Oregon eta Vermont (AEB) Cross River State (Nigeria), edo Behe Kalifornia, Chiapas, Jalisco eta Yucatán (Mexiko), Euskal Autonomia Erkidegoa eta Katalunia.



Zuzendari nagusia (eserita, ezkerretik hirugarrena), Mato Grossoko (Brasil) gobernadore Blairo Maggiren alboan. Haren atzean, Artur Mas lehendakari katalana; Baden-Württemberg-eko lehendakari Winfred Kretschmann; AEBek Frantziar duen enbaxadore Jane Hayfield; eta Kaliforniako gobernadore Jerry Brown.

Akordioa sinatu duten eskualdeek ondoren konpromisoa hartu dute, beste alderdi batzuen artean: hornidura elektrikoaren berdiseinuari eta haren sareari dagokionez, informazioa nahiz esperientziak partekatzea, eta

energia berriztagarrietarako aldaketa sustatzea, horniduraren segurtasuna bermatzeko asmoz. Garraioaren arloan, eskualdeek ekintzak egingo dituzte ibilgailu arin eta zamako ibilgailuetatik sortutako berotegi-efektuko gas-isurketak murrizteko. Isurketak murrizteko beharrezko beste arlo bat hondakinena da; beraz, sinatzaileek teknologiak partekatuko dituzte hondakinak murrizteko edo bigarren mailako lehengai edo energia bihurtzeko. Gainera, iraunkortasun laburreko klima-kutsatzaileak murrizten lagunduko dute (ikatz eta metanoa, esaterako), eta horrela aire-kalitatean epe laburreko onurak eragingo ditu, eta kliman eragiten duten kutsatzaileak murriztuko.

Guztien jarrera bateratua berotze globala aztertzeko ahalegin orokorra egitea da, eta horrek maila azpinazionalako ekintzak ekarriko ditu. Alde horretatik, aipatu behar da Garapenerako Nazio Batuen Programaren arabera, klima-aldaketari aurre egiteko beharrezko mitigazio nahiz egokitzapeneko ekintzen % 50-80 gobernuko maila azpinazionalan edo tokikoetan egingo direla.

Eskualdeko gobernu horiek nazioarteko lankidetzaren eredu zabalagoa eskaintzen dute, beren eskumeneko alorretan garatuko da, honako hauetan oinarrituz: eraginkortasun energetikoa; trafikoa eta garraioa; baliabide naturalen babesa eta hondakin murrizketa; zientzia eta teknologia; komunikazioa eta partaidetza publikoa; eta klima-kutsatzaile suntsikorrak.



Eva García, Kaliforniako gobernadore Jerry Brown-ekin.